

Erreklutamendu militarra Artazun 1847an.

1. JARDUERAK (1-3 JARDUERA)

- 1837ko Armadaren Ordezkapenerako Ordenantzaren testua aurkitu Liburutegi Digital Hispanikoan [<http://bdh.bne.es/bnne.es/detalle/bdh0000058443>]. Testu hori dokumentua idatzi zeneko araua zen. 63. artikuluan aztertu zerbitzu militarretik salbuesteko arrazoen erregulazioa, zein irizpideri erantzuten zioten eta kasuan kasuko dokumentuaren aplikagarritasuna.
- Azkenik, testu-iruzkinaren jarraibide orokorrei jarraituz testua komentatu.

2. DOKUMENTUAREN FITXA

1.1.	"Título" del documento	María Miguel Latienda Artazuko bizilagunak Nafarroako Kontseilu Probintzialari egindako erreklamazioa, Juan Cruz Aramendía semea zerbitzu militarretik salbuesteko eskatuz.
1.2.	Fecha del documento	1847/02/08
1.3.	Tipología documental	Erreklamazio administratiboa
1.4.	Lengua de redacción	Gaztelania
1.5.	Tipo de letra	
1.6.	Archivo	Archivo Real y General de Navarra (AGN)
1.7.	Signatura	CPN,Caj.62. Artazu.
1.8.	Orri kopurua	1
1.9.	Euskarriaren materiala	Papera

3. TESTUINGURU HISTORIKOA

Dokumentuaren testuinguru historikoa, Espainian erreklutamendu militarren mekanismo modura ordezkapen-sistemaren edo kinten orokortze progresiboa erabiltzea da. XVIII. mendearen amaieran ezarritako eta XIX. mendearen erdialdean behin betiko finkatutako sistema honetan, urtero zehazten zen zenbat gizon bildu behar ziren armadarako. Zenbaki hori estatuko probintzien artean banatzen zen, probintzia bakoitzeko biztanleria kopuruaren proportzioaren arabera, eta emaitzatzen ematen zuen kopurua probintzia bakoitzeko udalerriek banatzen zuten bertako biztanleriaren arabera ere.

Horrela, udalerrri bakoitzari armadan ordezkapena egiteko beharrezkoa zen gizonezko kupo bat (kopurua) esleitzen zitzaion. Artazu bezalako udalerrri txikiaren kasuan, 1 edo 2 gizonezkoa izaten zen kopuru hori. Udalerrri bakoitzari esleitutako kopurua betetzeko, udalak zozketa bat egin behar izaten zuen mutilen artean (hau da, adin errekrutagarrian zeuden gizonezkoen artean). Zozketan lehen zenbakiak lortzen zituztenak, -udalerrri bakoitzari esleitutako gizonen kupoa osatu arte-, soldadu bihurtzen ziren, XIX. mendean zehar 4 eta 7 urte bitarteko iraupena izan zuen zerbitzu militar bat emateko. Horri, erreserban ematen zuten denbora tartea gehitzen zitzaion (denbora tarte horretan soldadua ez zegoen soldadutzan, baina erabilgarri egoten jarraitzen zuen armadak berriz ere beharrezkoa izango balu, bertara zerbitzua ematera joateko).

Zerbitzu militarrek denbora luzea irauten zuenez (beharrezkoa, bestalde, prestakuntza militarra eskuratzeko), eta Nafarroako biztanleriaren zati handi batek eta Espainia osoa nekazaritzatik bizi zirenez, gazte bati soldadu bezala armadan zerbitzatzera joatea egokitzen zitzaionean arazo larria eragiten zuen familia askoren ekonomian; izan ere, familiek urte askotan zehar aukera galtzen zuten lan-adinean zegoen semeren batek armadara joan behar izaten zuenean. Eragozpen horiek, gainera, areagotu egiten ziren, armadan soldadu moduan sartu behar zuen pertsonak familiarekiko erantzukizunen bat izaten zuenean. Horregatik, eta kasu jakin batzuetan, familia batzuentzat seme bat armadan zerbitzua ematera bidali behar izateak adierazten zuen kostu sozial eta ekonomikoa arintzeko, botere publikoek hainbat kasu edo arrazoi sartu zituzten legedian, eta gazte batek arrazoi horiei helduta soldadutza legez egitetik libratu ahal zitekeen. Arrazoi hauen artean, bere aitona-amonak ekonomikoki mantentzen zituen biloba bat izatea, armadan jada zerbitzatzeko zebilen beste anaia bat izatea, mantendu umezurtz izateagatik beste anai-arrebekiko erantzukizunak edukitzea, etab.

Gainera, berme handiagoa izateko, udalek hartutako erabakien aurka berariazko organo batzuen aurrean erreklamazioak egiteko aukera eman zitzaion interesdunei. 1847 urte inguruan, erreklutamendu militarri buruzko erreklamazioak ebazten zituzten organo horiek probintzia-batzordeak ziren.

4. AUKERATUTAKO TESTUA

“María Miguel Latienda vecina de esta villa a Vuestra Superioridad expone: que para el reemplazo del ejército se ha sorteado en dicha villa para cubrir el cupo de un soldado que le ha correspondido por cuya razón se ha incluido en suerte a su hijo Juan Cruz Aramendia a quien ha cabido la suerte del número 2º.

La exponente, señor, hizo presente a tiempo oportuno según se demuestra por el documento número 1 adjunto que al citado su hijo debía eximirse de entrar en suerte puesto que la recurrente se haya constituida en la edad de 61 años, en estado de viudez y **atenida** su subsistencia del trabajo de su hijo único y en cuya compañía vive según también acredita por el documento adjunto número 2, cuyas razones nada han servido, incluyéndole en el sorteo; y como puede suceder que el sujeto a quien ha cabido la suerte de soldado pueda librarse del servicio de las armas por algún incidente. A vuestra superioridad suplica que en atención a lo expuesto y mediante a que la interesada se haya comprendida en la excepción novena del artículo 63 de la Ordenanza de reemplazos de 1837, se digne disponer, caso que se excluya al número 1, quede libre su hijo de cuyas manos depende la subsistencia de la que habla. Gracia que no duda alcanzar de la notoria bondad de Vuestra Superioridad cuya vida guarde Dios muchos años. Artazu, 8 de febrero de 1847.

Muy ilustre Señor.


A ruego de la suplicante. María Miguel Latienda.

Muy Ilustre Señor Presidente del Consejo Provincial de Navarra.”

GAKO-HITZAK

Atenida: Menpekoa. Bere existentzia zerbaitekin edo norbaitekin lotuta dagoela edo horren mende dagoela.

5. AUKERATUTAKO TESTUAK (IRUDIA)



CPN, Caj.62. Artazu. f.2